

DATA ETA ORDUTEGIA

Herrialdea	Datak	Ordutegia	Tokia
Tutera	Irailak 12,26; urriak 10 ; azaroak 07,14	9:00- 12:00	Rua zentro zibikoa, Rua Kalea, 33 Tutera.
Altsasu	Irailak 10,24 ; urriak 15 ; azaroak 05,12	9:00- 12:00	Intxostiapunta Burunda kalea. 1, beheko-1. Solairua, Altsasu
Tafalla	Irailak 06,27 ; urriak 18 ; azaroak 8,15	9:00- 12:00	Berrespena zain dago
Lizarra	Irailak 14,28 ; urriak 19 ; azaroak 09,16	9:00- 12:00	Navarrerria Kalea, 62 Lizarra
Iruña	Irailak 11,25 ; urriak 9 ; azaroak 06,13	9:00- 12:00	Fuerte del Principe Ed., Goroabe Kalea, 36 Iruña

ORDUTEGIA:

09:00etatik 12:00etara

Online tutoretza, Moodle Plataformaren Bitartez
Lurralde bakoitzeko gutxienez 5 profesionalak izen
eman beharko dute tailerrak burutzeko eta gehienez
25 pertsoneko taldeak izango dira

IZEN EMATEA

[Egin klik hemen](#) online formularioaren
bitartez izen emateko



IRAKASLEAK

Asociación de la
Industria Navarra



Ana Beaumont



INFORMAZIOA

Nafarroako Berdintasunerako Institutua

Tel. 848 421512

mail: informacioninai@navarra.es

AIN. Prestakuntza eta Garapen Dep.

Tel. 948 42 11 49

mail. smendoza@ain.es

PRESTAKUNTZA - GAIKUNTZA EMAKUME GAZTEEN AURKAKO INDARKERIAN



Antolatzen du – Organiza:

Lagutzen du – Colabora:

Instituto Navarro para la Igualdad
Nafarroako Berdintasunerako Institutua



AURKEZPENA

Programa honek generoaren ikuspegia duen eta paradigma feministatik abiatzen den prestakuntza-gaikuntza bat planteatzen du, gazteriarekin lotutako profesionalentzat, hala nola Gazteria arloko teknikarientzat (Nafarroako Gobernuko Gazteriako langileak, toki-entitateetako langileak, Gazteentzako Informazio Sareko langileak eta gazteentzako informaziorako bulegoetako eta guneeetako langileak), emakume gazteen kontrako indarkeriaren prebentzioaren arloan; honako helburu hau du: genero-estereotipoen aldaketa bultzatzeko eta sustatzeko ekintzak diseinatu ahal izatea eta emakume gazteen kontrako indarkeria prebenitzea.

NORI ZUZENDUA

Gazteria teknikariei eta gazteekin lan egiten duten gainontzeko figura profesionali zuzendua

HELBURUAK

1. Genero-indarkeriaren fenomeno ulertzea, haren egitura-izaera eta, horren barruan, Giza Eskubideen urraketa larri horri eusten dioten elementuak aztertuz.
2. Genero-ikuspegia hark ukitzen dituen arloetan progresiboki sar dadila bultzatzea.
3. Gizarte-justiziarekin eta aukera-berdintasunarekin bat datozen jarrerak sustatzea.
4. Trebetasunak, tresnak eta lanabesak eskuratzea, eta prebenitzeko, hautemateko eta esku hartzeko baliabideak lortzea modu egokian eta profesional bakoitzari dagokion arloan.

EDUKIAK

1 Saioa. Emakumeen kontrako indarkeria, giza eskubideen kontrako urraketa.

- Mainstreaming – transbertsalitate kontzeptua.
- Interseksionalitate eta beste aldagaiei buruzko oharra: emakume arrazializatuak, dibertsitate funtzionala...
- Biktimatik bizirik ateratakoa izatera. Inplikazio kontzeptualak eta ikuspegi sozialaren aldaketa.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren pandemia.

2 Saioa. Indarkeria sinbolikotik feminizidiora

- Genero-desberdintasunak transmititu eta betiketzen dituzten mekanismoak. Ikaskuntza ikusezinak.
- Mikroindarkeria. Desberdintasunak normaltea.

3. Bikote-indarkeriaren ezaugarri

- Erasoekiko tolerantzia-atalasea.
- Emakumeen kontrako indarkeriaren inpaktua. Ondorioak eta kalteak.
- Laguntza-harremana. Profesionalen zailtasunak.
 - Gazteengan genero-indarkeria hautemateko adierazleak.
 - Bizirik iraun duten emakume gazteekin esku hartzea: Zer transmititu eta zer ez.
- Administrazioaren baliabideak.

4 Saioa. Zergatik esaten dugu maitasun erromantikoa arriskutsua dela?

- Bikote-maitasunaren eraikuntza sozialaren elementuak: mitoak, sufrimendua, arriskuak.
- Prebentziorako tresnak:
 - Emakume- eta gizon-eredu berriak.
 - Maitasun-eredu alternatibo bat aurkeztea.
 - Gazteekin lan egiteko tresnak eta baliabideak aurkeztea.

5 Saioa. Indarkeriatik atera egin daiteke: Ahalduntzeko gakoak.

- Sexu-izua eta ikasitako babesgabetasuna.
 - Definizioa eta transmititzeko moduak.
 - Kontrol soziala, familiarra eta genero-barnekoa gauzatzea.
 - Sexu-indarkeriarekiko blokeoa.
- Autodefentsa feminista. Gorputza, gure lurraldea:
 - Hausnarketa feminista.
 - Sentsibilizaziorako eta eraldaketarako tresna politikoa.

IRAKASLEAK

Ana Beaumontek koordinatuko du proiektua eta emanen ditu lehen 4 saioak. Talde-dinamizazioan eta genero-ikuspegian espezializatutako psikologoa da.

Azken saioa Autodefentsa Feministako Sareko profesional batek emanen du.

